

UDAL GOBERNUAREN ADIERAZPENA

Donostiako Udalak argiro izan nahi du lekuko, bai donostiar gehienek irrikatzen duten bakearena, bai pertsonen bizitza eta askatasunezko elkarbizitza errespetatzeko exijentziarena ere.

Baina horrek, nahitaez, eraman behar ditu lagun indarkeriaren eta terrorismoaren biktima guztienganako eskerrona eta oroitzapena zein haien familiekiko bultzada morala.

Eta hori adierazteko erarik onena da bizi espazioa bat sortzea, alegia, haiek gogoan izateko parke bat, bakerako parke bat.

Alkatetza honek ekimen hau proposatu zien Eudelen *Demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen pluraltasunarenganako errespetuaren aldeko Adierazpen zibikoa* 2002ko maiatzaren 28ko osoko bilkuran bultzatu zuten zinegotzi taldeei, baita Donostiako Udalean Biktimen Udal Foroak 2002ko urriaren 5eko bilkuran azaldu ere, partaide guztiek onartu zutelarik.

Aipatu konpromisoak betetzeko, Donostiako Udalak eta haren gobernuak asmo dute gai horretan aditu diren espezialistentzako lehiaketa bidez izendatzea aipatu interbentzio hori Loiola Erriberetako poligono berriko parke publikorako gordetako eremuan. Alde hartan, Amaiur parkea izenekoan, aipatu helburuak gauzatzea ekarriko duen proiektu bat paratu behar da.

Bakearen eta giza eskubideen aldeko mugarriz gogoangarria izango da. Gune emozioz beteriko bat, hausnar egiteko eta biktimak gogoan edukitzeko.

Aipatu parkea, zentraltasun handiko alde batean kokatua, Rafael Moneok diseinaturiko elizaren eta garraio askotariko geltokiaren ondoan egongo dela, Kristina Ene parketik eta

Anoetako kirol aldetik ere hurbil, Amara Berriren eta Loiola ibarraren lokarria izango da, eta, kalitate parametroen arabera garatu beharko da, Erriberetako auzo berrirako urbanizazio proiektuan jasotako aurrekontu diru izendapenak oinarri hartuta.

Prozesua abian jartzeko orduan, honako alderdi hauek izan ditugu kontuan:

- ❖ Hauxe dela unerik egokiena proiektua enkargatzeko, eragiketa bera etxebizitzak eraikitzearekin eta gainerako ekipamendu publikoak garatzearekin elkar hartuta joan dadin.
- ❖ Horren finantzazioa urbanizazio zama izango dela poligonoko jabe publiko eta pribatu guztientzat.
- ❖ Beste erakunde eta instituzio publiko zein pribatuek eta herriko taldeek ere partaidetza izan behar luketela parkea sustatzeko ekintzetan.
- ❖ Biktimen Udal Foroari lantzean-lantzean iritzia eskatu eta informazio eman beharra dago orain abiatzen den prozesu osoan.

Ekimen honen motibazioa argiro azalduta geratu da. Oinarrien orriak gaur onartu ditugu. Orain gauza bat besterik ez dugu falta: konpromisoa polemikarik eta alderdikierarik gabe betetzea. Hainbat herritar asasinatutik, zauriturik, mehatxaturik edo ihes eginda egoteak dakartzan mina eta drama ditugu bultzagile asmo eder hau garatzerakoan, konbentzimendu eta pasioz beterik.

Hona hemen parke honetan gauzatu beharreko eginkizunak: herritar moduan ditugun harremanen giza dimentsioa indartzea, biktimak gogoan bizirik edukitzea, balio demokratikoak eta bake kultura zabaltzea.

Donostian, 2005eko urriaren 25ean.